

Etxeen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkesta  
2024ko lehen hiruhilekoa

## Nafarroako kontsumitzaileen konfiantzak gora egin du 2024ko lehen hiruhilekoan

Aurrezpenaren inguruko itxaropenek islatu dute 2024ko lehen hiruhilekoko bilakaerarik onena

2024ko apirilaren 9a

### EMAITZA NAGUSIAK


**Aldiaren laburpena.** Kontsumitzailearen Konfiantza Indizeak (KKI) aurreko hiruhilekoan baino iritzi baikorrak agertu ditu, eta 2023ko hirugarren hiruhilekoan hasitako berreskuratze-bidetik jarraitu du.

Kontsumitzaileen konfiantza handiago hori ia osagai guztietan ikus daiteke, batez ere aurrezpenaren inguruko itxaropenetan, enpleguaren inguruko aurreikuspenetan, espero den egoera ekonomiko orokorrean eta erosteko unean. Eskariaren inguruko aurreikuspenek, berriz, iritzi ezkorragoak jaso dituzte.

**Europar Batasuna.** Espainiako eta Europako konfiantza-indizeek ere 2023ko laugarren hiruhilekoan baino iritzi baikorrak islatu dituzte.

### 1. GRAFIKOA

Kontsumitzailearen Konfiantza Indizea



Iturriak: Nastat (Nafarroa) eta Eurostat – Europako Batzordea (Espainia eta EB). Hiruhilekoetako batezbestekoak



#### CONTACTO I HARREMANETARAKO

[estadistica@navarra.es](mailto:estadistica@navarra.es)

848 42 34 00

## KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA INDIZEA


Kontsumitzailearen Konfiantza Indizeak (KKI) iritzi baikorragoak agertu ditu aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-17,7 eta -12,4, hurrenez hurren). Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuz gero, berriz, kontsumitzailearen konfiantzak 15,6 puntutan egin du gora.

**KKIaren osagaien bilakaera.** 2023ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, aurrezpenaren inguruko itxaropenetan izan den igoera eta, haren atzetik, enpleguaren inguruko itxaropenei eta espero den egoera ekonomiko orokorrari buruzko iritzi baikorragoak nabarmendu dira, eta, neurri txikiagoan, etxean espero den egoera ekonomikoari buruzkoak.

Urteik urtera, osagai guztietan agertu dira iritzi baikorragoak, eta aurrezpenaren eta lan-merkatuaren inguruko itxaropenek islatu dute bilakaerarik onena.

### 2. GRAFIKOA

KKIaren osagaien bilakaera (itxaropenak)



Iturria: Nafarroako Etxeen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkesta (Nastat).

### 1. TAULA

Kontsumitzailearen Konfiantza Indizea eta haren osagaiak

Osagaiak	2022				2023				2024
	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I
Etxean espero den egoera ekonomikoa	-18,8	-19,9	-25,6	-26,3	-22,6	-16,1	-13,4	-14,8	-13,9
Espero den egoera ekonomiko orokorra	-37,4	-28,5	-48,7	-46,1	-39,1	-25,1	-25,7	-29,3	-25,7
Langabeziaren inguruko itxaropenak	-5,9	-0,4	-21,5	-20,4	-15,4	0,3	-9,8	-4,0	0,1
Aurrezpenaren inguruko itxaropenak	-19,9	-24,8	-35,5	-32	-35,3	-28,6	-28,5	-22,8	-10,3
<b>Kontsumitzailearen Konfiantza Indizea</b>	<b>-20,5</b>	<b>-18,4</b>	<b>-32,8</b>	<b>-31,2</b>	<b>-28,1</b>	<b>-17,4</b>	<b>-19,3</b>	<b>-17,7</b>	<b>-12,4</b>

Iturria: Nafarroako Etxeen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkesta (Nastat).



#### CONTACTO I HARREMANETARAKO


[estadistica@navarra.es](mailto:estadistica@navarra.es)

848 42 34 00

**Sexuaren araberako bereizketa.** Kontsumitzailearen Konfiantza Indizea sexuaren arabera eta 2023ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta aztertuz gero ikus daitekeenez, konfiantzak gora egin du bi sexuetan, eta igoera handiagoa izan da emakumeen kasuan gizonen kasuan baino (6,0 eta 4,6 puntukoa, hurrenez hurren). Nolanahi ere, aurrezpenaren inguruko itzaropenei buruzko iritzietan islatu da bi sexuen arteko alderik handiena, eta baikorragoak izan dira emakumeen kasuan.

### 3. GRAFIKOA

Kontsumitzailearen Konfiantza Indizea, sexuaren arabera



Iturria: Nafarroako Etxeen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkesta (Nastat).

## ETXEETAKO SENTIMENDU INDIZEA

Etxeetako Sentimendu Indizeak, aurreko hiruhilekoan moteldu ondoren, 2022ko laugarren hiruhilekoan hasitako goranzko joerari heldu dio berriz, eta 73,1era iritsi da (69,3ra aurreko hiruhilekoan).

Osagai guztiek egin dute gora, batez ere egungo egoera ekonomiko orokorrari eta erosteko uneari buruzko iritziek (6,0 eta 5,3 puntu, hurrenez hurren). Halaber, gora egin dute espero den egoera ekonomiko orokorrari, etxeko egungo egoera ekonomikoari eta etxean espero den egoera ekonomikoari buruzko iritziek, ordena horretan.

Urtetik urtera, osagai guztietan islatu dira iritzi baikorragoak. Nolanahi ere, erosteko uneak agertu du bilakaerarik positiboena.




#### CONTACTO I HARREMANETARAKO

[estadistica@navarra.es](mailto:estadistica@navarra.es)

848 42 34 00

#### 4. GRAFIKOA

Etxeetako Sentimendu Indizea



Iturria: Nafarroako Etxeen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkesta (Nastat).

### ITXAROPEN EKONOMIKOEN INDIZEA

Itxaropen Ekonomikoen Indizea -6,4ra iritsi da, eta, beraz, 2023ko laugarren hiruhilekoan baino 9,4 puntu handiagoa izan da.

Prezioen inguruko itxaropenetan eta, haien atzetik, aurrezpenaren eta enpleguaren inguruko itxaropenetan ikusitako iritzi baikorrak nabarmendu dira. Eskariaren inguruko itxaropenetan, berriz, iritziak aurreko hiruhilekoan baino apur bat ezkorragoak izan dira.

Urtetik urtera, indizeak 18,8 puntuko igoera izan du, osagai guztiek izan duten dinamismo handiagoaren ondorioz, eskariaren inguruko itxaropenen kasuan izan ezik, ziurgabetasun handiagoa agertu baita kasu horretan.



#### CONTACTO I HARREMANETARAKO


[estadistica@navarra.es](mailto:estadistica@navarra.es)

848 42 34 00



## 5. GRAFIKOA

Itzaropen ekonomikoen indizea



Iturria: Nafarroako Etxeen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkesta (Nastat).

## EROSTEKO PROBABILITATEAREN INDIZEA


Erosteke Probabilitatearen Indizea 6,4ra iritsi da, eta, beraz, aurreko hiruhilekoan baino puntu bat handiagoa izan da.

Osagai guztiek 2023ko laugarren hiruhilekoan baino iritzi baikorrak agertu dituzte.

Urtetik urtera, indizeak 1,0 puntuko igoera izan du, eta telefono mugikorraren eta lehen etxebizitzaren erosketak agertu du dinamismorik handiena.

## 6. GRAFIKOA

Erosteke Probabilitatearen Indizea



Iturria: Nafarroako Etxeen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkesta (Nastat).



**CONTACTO I HARREMANETARAKO**

[estadistica@navarra.es](mailto:estadistica@navarra.es)

848 42 34 00



## FAMILIAREN EGOERA EKONOMIKOAREN INDIZEA


Familiaren Egoera Ekonomikoaren Indizeak 2023ko lehen hiruhilekoan hasitako bilakaera positiboa areagotu du, eta 24,2ra iritsi da (18,8 aurreko hiruhilekoan).

Dinamismo handiago hori aurrezpenaren inguruko itxaropenetan eta, haien atzetik, finantza-egoeraren inguruko itxaropenetan ikusitako baikortasunaren ondorioa da. Baikortasun horrek konpentsatu egin du aurrezpenaren balorazioan agertutako dinamismo txikiagoa.

Urtetik urtera, indizeak 12,7 puntuko igoera izan du, eta osagai guztietan agertu dira iritzi baikorragoak.

### 7. GRAFIKOA

Familiaren Egoera Ekonomikoaren Indizea



Iturria: Nafarroako Etxeen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkesta (Nastat).





## OHAR METODOLOGIKOA

Etheen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkesta Nastatek hiru hilean behin 640 etxeko ausazko lagin bati egindako estatistika-eragiketa da.

Indizeak egiteko xehetasun metodologikoa kontsulta dezakezu Nastaten webgunean.

### **Fitxa teknikoa**

- **Unibertsoa:**  
18 urte edo hortik gorako biztanleria, Nafarroako Foru Komunitateko familia-etxebizitzetan bizi dena.
- **Inkesta mota:**  
telefonoz eta Internet bidez.
- **Laginaren ezaugarriak:**  
ausazko hautaketa, sexuaren eta adin-taldearen arabera estratifikazioarekin.
- **Laginaren tamaina:**  
640 kasu.
- **Errore estatistikoa:**  
 $\pm\% 4,0$  (laginaren tamainaren arabera eta Populazio Mugagabeen Laginen Teoriaren arabera kalkulatuta, probabilitate txikieneko kasuan  $p = q = 0,5$ ).
- **Konfiantza-maila:**  
 $\% 95,5$  ( $K=2$ ).
- **Aldizkakotasuna:**  
hiru hilean behin.



## INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

[Etheen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkesta. 2024ko lehen hiruhilekoa.](#)



## CONTACTO I HARREMANETARAKO

[estadistica@navarra.es](mailto:estadistica@navarra.es)

848 42 34 00

